

BEZEROAREKIKO HARREMANAK

Zerbitzu bat garatzeko ezinbestekoa da bezeroarekiko harremanak ahalik eta modu eraginkorrean burutzea. Horregatik, guk bezeroari eskainiko diogun harremana gertutasun handikoa eta pertsonala izango da, gure artean konfiantza sortzeko.

Orokorrean gure harreman mota zuzena izango da; izan ere, gure bezeroek zuzenean gurekin harremanetan jarriko dira. Bezeroekiko edukiko dugun harremana ere oso gertukoa izango da, harpide izango baitira.

Irakasleekin izango dugun harremana ere hurbilekoa izatea nahi dugu, eta horretarako, noizbehinka, irakasleekin bilera bat antolatuko dugu harreman hau lortzeko eta mantentzeko. Aldi berean, bilera horiek baliatuko ditugu haurrek ikasketetan izango duten bilakaeraz hitz egiteko, euskararekin arazoren bat edo zailtasunen bat sortzen bada, esate baterako, umeren bat oso galdua badago, arazoa konpontzen saiatuko gara, lehenbailehen konponbide eraginkor bat bilatuz. Bilerak ikastoletan egingo ditugu guztiok biltzeko leku aproposena eta errazena dela iruditzen zaigulako.

Bezeroek informazio gehiagoren eske baldinba daude, gurekin kontaktuan jarri daitezke telefonoaren bitartez. Guk Zelai Ariztiko lokalean bertan elkartzeko ordu bat eman emango diegu. Bertan dena sakonago azalduko diegu, adibidez, zein izango den metodologia, ordutegia, irakaslea, gela...

Bukatzeko, hasiera batean gure bezeroek euskara ulertuko ez dutenez, beraiek adituko duten hizkuntza batean mintzatzen saiatuko gara, adibidez, gazteleraz, ingelesez, frantsesez... Guk hizkuntza horietako baten ezagutza izango dugu, beraz, alde honetatik ez legoke inolako arazorik egon behar. Ondoren, denboraren poderioz, euskaraz hitz egiten saiatuko gara umeekin, elkarrizketa arrunt edota simple bat edukitzeko helburuarekin.

Bezero bakoitza bakartzat tratatuko dugu. Irisgarritasuna, informazio fidagarria eta arreta eskainiko diegu. Horrela, bezeroen eta zerbitzuaren arteko konfiantza hobetzeko aukera izango dugu.